

AUKEA

2014KO AURREKONTUA

MEMORIA ETA ARAUAK



AUKEA ERAKUNDE AUTONOMOA

2014KO AURREKONTUAREN MEMORIA

Egoera ekonomikoa, oro har, konpondu beharrean, azken bolada honetan ematen du korapilatu egin dela oso azkar. Ezin dugu besterik pentsatu gogora ekartzen badugu duela gutxi Arrasaten izan dugun itxiera industrial, Fagor Electrodomésticos kooperatibarena, zuzenean jo duena gure herria.

Neurriak hartzen dituzte eta gizarteak oro har bizi duen etsipen egoera erakusten duten egoera ematen dira; bitartean langabezia pentsaezina zen mailara iritsi da.

Horiek gorabehera, uste dugu kirolak funtsezko eginkizuna jokatu dezakeela krisi une hauei aurre egiteko, herritarrei lagundu baitiezaieke denon inguruan bizi dugun ezkortasunaz askatzen, burua jasotzen, antsietatea kanporatzen eta aukera berriak ikusarazten.

Uste dugu kirolak indarra ematen digula egunez egun egoerak gainditzeko, aukera berriak ikusteko behar dugun argitasuna eta erronka berriei aurre egiteko indarra ematen duela; presioez askatzen gaitu, estresa kentzen digu eta baikorrago egiten gaitu. Eta horixe eskaintzen du AUKEAK; kirola egiteko aukera asko eta ugariak.

Giltzarria da eskaintza erakargarria egiten asmatzea, zerbitzu ona ematea eta arrasatear gehienengana iristea, udalaren kirol marketina hobetuz. Seguru gaude arrasatear askok ez dakitela zer daukaten herrian. Eta komunikazio plana guri dagokigu.

Instalazio berriak edukitzeko ezin dugunez egin garrantzi handiko inbertsiorik, hala nola, igerileku handiagoa, wellness eremu bat edo azken belaunaldiko gimnastika gela bat, daukaguna eskainiko dugu, ugari baitaukagu, prezio onean eta zerbitzu ona emanez.

Kirol guneetan esan ohi da, halako krisialdi garaietan, familia asko egoera ekonomiko txarra pairatzen ari direlarik, askotan errepikatzen dena zer dela: pertsona askok, kirolik egiten ez zutenak, kalera irteten dutela goizero txandalean eta kirol oinetakoez jantzita, arineketan edo oinez ibiltzen, izena ematen dutela gimnastika gela erabiltzeko, kirol ekintzetako eskolak hartzeko, taldeko kirol gehiago egiteko edo besterik gabe etxeko bizikleta estatikora igotzen direla. Parke bateko jarleku batean edo tabernako barra baten aurrean eserita buruari eragin beharrean, inbertitzen dute osasunean eta burua ahalik eta argien edukitzen.

Orain arte AUKEA asko saiatu da herritarrak erakartzen jarduera fisikoa egin dezaten, eta horretarako, batez ere ikastaroak emanez; 2013ko urtean antzeman dugu geroz eta ikastaro egile gutxiago dagoela eremu lehorrean, gure ustean egoera ekonomiko zailaren ondorioz, askotan alde batera uzten baititugu beste modu batean egin daitezkeen ekintzak edo

jarduerak, adibidez gimnasio batetara edo kiroldegiko igerilekura joanez, ikastaroetara joan beharrean, edo merkeago egiteko beste leku batzuk aurkituz.

Eta egiaz, bai antzeman dugu erabiltzaile gehiago dabilela kiroldegiko gimnasioan, guztiz positiboa iruditzen zaigularik, izan ere, AUKEAren helburu nagusia da herritarrak bizi-bizi mantentzea. Eta gure instalazioetan bada, are eta hobeto. Horregatik, beharrezko ikusi dugu aldizka, baina etengabe, inbertsio txikiak egiten jarraitzea gimnasioko makinetan.

Gure langileen bidez ematen ditugun igeriketa ikastaroei dagokienez, ostera, baieztatu dezakegu mantendu egin dela ikastaro egileen kopurua. Oso datu baikorra da, eta horrek zerbitzuaren kalitatea erakusten du, baina zera ere erakusten du: igerilekua, instalazio gisa, oso berezia dela eta zaila dela ordezkatzeko beste jarduera edo instalazio batez.

2014rako proposamenen artean hauek nabarmenduko ditugu:

Gastuei dagokienez, energia kontsumoan aurrezteko aukerak lantzen jarraituko dugu. Energia eraginkortasuneko azterketa bat egin dugu 2013an, batez ere ur eta argi kontsumoari buruzkoa, eta abian jarri dugu beste azterketa bat, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu duena, erregai konbentzionaleko materiala biomasako erregai materialez aldatuz lor daitekeen aurrezkia aztertzeko.

Une honetan, gastu txikiago bat lortze aldera, eta zehazteke badago ere, instalazioak irekitzeko ordutegia murrizteko aukera aztertzen ari gara, noizean behingo garaietan, behintzat, hala nola, Aste Santuan, San Juan jaietan eta Gabonetan.

Uarkaperi dagokionez, GUREAK taldearekin egindako negoziazioek ez dute eman fruiturik eta une honetan abian dugu udal pilotalekua kontrolatu, garbitu eta kudeatzeko kontratua adjudikatzeko lizitazioa, eta pentsatzen dugu, oraingo egoeran, gauzatu egingo dela adjudikazioa.

Iturriperi dagokionez, aipatu behar dugu barne antolaketa egin eta gero, lantzen ari garela gure langileez egitea instalazioetako garbiketa, kontzeptu horren truke dugun azpikontratazioa bertan behera uzteko edo nabarmen murrizteko, martxotik aurrera, orduan, indarrean dugun garbiketa zerbitzuaren kontratua bukatuko baitzaigu. Oraindik ez dakigu, baina ematen du gai izango garela zeregin hori egiteko eta azpikontratazioa alde batera uzteko.

Diru-sarrerei dagokienez, orain ditugun abonudunen kopurua mantentzea espero badugu ere, jakitun gara litekeena dela diru-sarrera gutxi duten pertsonen eskatzen dituzten laguntzen kopurua handitzea; horrek ekarriko luke diru-sarrera gutxiago edukitzea kontzeptu horren truke. Hori gorabehera, instalazioak eta eskaintzen ditugun ikastaroak sustatzen jarraituko dugu.

Ildo horretan, hainbat berrietasun dugu 2014ko urterako:

- Lehenengoz, urteko abonua bi zatitan ordaintzeko aukera eskainiko dugu, bi epetan (urtarrilean eta ekainean).
- Berritasun nagusietako beste bata da prezio sinboliko bat kobratuko diegula abonudunei instalazioen erreserba egitearen truke eta argiak piztearen truke; horrek diru-sarrera berria ekarriko du. Litekeena da neurri hori izatea eztabaidagarri samarra hasiera batean, baina pentsatu dugu ona izango litzatekeela egokitzea, jendea arduratu dadin egiten dituen erreserbez (argiak piztea beharrezkoa denean bakarrik, erreserba bertan behera uzteaz arduratzea joan behar ez badute...). Eta hori hala da, zoritxarrez, doan dugunaren erabilera okerra egiten dugulako pertsonok.
- Bestalde, ia seguru, LANBIDERen enplegua sustatzeko programari esker, kirol aholkulari bat izan dezakegula 6 hilabetez gimnasioa, eta horren ardura izango da, batetik, erabiltzaileei erakustea zelan erabili makinak eta, bestetik, lortu nahi dituzten helburuen arabera, zer ariketa egitea komeni zaien aholkatzea. Seguru gaude kirol aholkulari hori egonez gero gimnasioan, onura baino ez digula ekarriko guztiei, bai erabiltzaileei, hobetu atendituta sentituko direlako, eta bai AUKEAri ere, kontrol handiagoa izango duelako, makinaren eta kirol materialaren erabilera egokiari buruz.
- Azkenik, hileroko noizean behingo jarduerak eta kirolarekin lotutako jarduerak eskaini nahi ditugu, hala nola, hitzaldiak, bideoak, ikastaroak..., kirola hurbiltzeko arrasatearregina eta Udal Kirol Erakunde Autonomoaren berri izan dezaten.

Lanaren lerro nagusiak aipatuko ditugu, eta zehatzago aztertuko ditugu 2014ko aurrekontuaren gastuen eta diru-sarreraren atalak.

GASTUEN AURREKONTUA - 2014

2014ko gastuen aurrekontua da guztira 1.621.715,11 euro, eta horrek esan nahi du jaitsiera txiki bat ematen dela (%1), 2013ko ekitaldiko bukaerako aurrekontuaren aldean.

Hauek dira gastuen aurrekontu honen ezaugarri nagusiak:

- I. Kapituluak %1,4 jaisten da, norbere langileen berregituraketa baten ondorioz, eta hobera egiten dute, aldi berean, AUKEAk ematen dituen zerbitzuek.

Gastuen aurrekontuari buruzko datuak gehitzeko, gastuen kapituluei buruz esango dugu:

LEHEN KAPITULUA – PERTSONALAREN GASTUAK - (630.165,11 €)

Lanpostu jakin batzuek (atezaina, sorosleak edo monitoreak) etengabeko presentzia behar dute, langile baten berezko lan egutegi batetik baino harago (hau da, urteko 12 hilabeteetan bete behar dira lanpostuak, ez 11 hilabeteetan, gainerako lanpostuetan arrunta dena) eta askotan horrek gastua gehitzen du, lanpostuen arabera kalkulatzen baitugu hori.

2013ko bukaerako aurrekontuaren aldean, adierazi behar dugu gastuaren jaitsiera dakarrela (%1,42). AUKEAk dauzkan giza baliabideak hobetzen saiatzeko ahalegin berezia egitearen ondorioa da hori, une jakin bakoitzari egokitu behar horretan.

BIGARREN KAPITULUA – GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN (857.350 €)

2013ko ekitaldiko behin betiko aurrekontuaren zenbatekoari dagokionez, II. Kapituluako gastuak igo dira apur bat (%1,85).

II. Kapitulu honetako kontu-sailik esanguratsuenei buruzko azalpenak hauek dira:

- Kontserbazioa eta konponketa - 33.000 €

%13,79 igo da, atzean utzitako ekitaldiaren aldean, memoria hau idazteko unean erabiltzen ari garen datuen arabera, instalazioaren funtzionamendu ona bermatzeko egin beharra dugun gastua ahalik eta gehien egokituz.

- Aseguruaren konponketak – 3.000 €

Diru-sarreraren kontu-sail bati lotuta dago kontu-sail hau, Aseguruaren diru-sarrerak kontu-sailari, eta AUKEAK kontratatutako aseguru polizek zati batean (frankiziak egon ohi direlako) geroago estalita geratzen diren ezbeharren ondorioz sortzen diren gastuak jasotzen ditu

- Gasa – 144.000 €

%10 igo da, 2013ko ekitaldirako gastuen aurreikuspenaren aldean, energia konbentzionalen merkatuak etengabe dituen gehikuntzengatik eta zaila egiten zaigu zehatz-mehatz aurreikustea, eta aipatutakoari gehitu behar diogu zuzenean eta nabarmen eragiten diola kontsumoari ekitaldian izan dezakegun klimatologia.

- Ura eta zaborrak - 89.000 €

%2,2 igo da, 2013ko ekitaldirako gastuen aurreikuspenaren aldean, udal tasen gehikuntzaren arabera.

- Energia elektrikoa - 144.000 €

Gasak izan bezala, %10eko gehikuntza du, iazko ekitaldiko gastuaren aurreikuspenaren aldean.

- Musakolako garbiketa zerbitzuak (185.200€)

Zuhurtziagatik gaur egun ordaintzen dugun prezio errearen arabera kalkulatu dugu, nahiz eta, 2014ko hasieran lizitazioa atera behar dugunez, agian merkeagoa izan daitekeen.

- Kirok jardueren zerbitzuak - 66.000 €

Proporzioz AUKEAko diru-sarrerekin lotuta dago kontu-sail hau, ematen diren zerbitzuengatik.

- Uarkape pilotalekuaren mantentzea eta kudeaketa – 67.200 €

%2,2ko igoera orokorra aplikatu dugu, 2013ko bukaerarako aurreikusitako datuen aldean, energia kontsumoen gastuetan izan ezik, %10eko gehikuntzarekin kalkulatu baititugu, energia merkatu gorabeheratsua dela-eta izan daitezkeen desbideraketak aurreikusita izateko.

- Iturripe kiroldegiko garbiketa (15.000€), mantentzea eta kudeaketa - 37.200€

%2,2ko igoera orokorra aplikatu dugu, 2013ko bukaerarako aurreikusitako datuen aldean, energia kontsumoen gastuetan izan ezik, %10eko gehikuntzarekin kalkulatu baititugu. Iturripeko garbiketari dagokionez, %66 jaitsi da aurreikusitako gastua, izan ere, aukera nahiko erreala dago AUKEAk egiteko garbiketa zerbitzua martxoaren erdialdetik aurrera, orduantxe bukatuko baita indarrean dugun kontratua.

HIRUGARREN KAPITULUA – FINANTZA GASTUAK (200 €)

Azken ekitaldiko gastu errealarekin bat egokitu dugu.

LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (117.000 €)

Igoera nabarmena jasaten du kapitulu honek (%16,19), izan ere, kirol taldeei garai hauetan laguntza handitu nahi izan baitzaie.

Kapitulu honetako kontu-sailen banantzea da:

- Kirol taldeentzako diru-laguntza - 70.000,00 €

% 16,67-ko igoera ematen da eta 2011 aurreko urteetako kopuruetan ezartzen da.

- Kirol ekintzetarako diru-laguntza - 5.000 €

Aurreko ekitaldian zegoen diru-kopurua mantendu dugu.

- Leintz Eskola Kirolaren diru-laguntza - 39.000 €

Eskola kirolarentzako laguntza gehitzea erabaki da, %19,27, eta 2011 aurreko urteetako kopuruetan ezartzen da.

- Zuzeneko diru-laguntza berezia - 3.000 €

Diru-laguntzen lerro berri bat sartu nahi izan dugu, ekitaldian jasotzen ditugun noizean behingo eskaerei lagundu ahal izateko, normalean gutxiengoan dauden kirolak egiten dituzten norbanakoek egindako eskaerak.

ZORTZIGARREN KAPITULUA – PERTSONALAREN AURRERAKINAK (17.000 €)

2013ko urtean zegoen kopuru berdina kontsignatu dugu. Kopurua bat dator diru-sarreretan dagoen “aurrerakinak itzultzea” kontu-sailarekin, baina aldaketak izan ditzake, aurkezten dituzten eskabideen arabera.

DIRU-SARREREN AURREKONTUA - 2014

Diru-sarrereren aurrekontuaren zenbateko osoa da 1.621.715,11 euro, eta 2013ko bukaerako aurrekontuaren aldean %1 jaitsi da.

AUKEAren defizita estaltzeko, 2014rako aurreikusitako Udalaren ekarpena da 890.615,11 euro, 2013ko ekitaldian baino %0,7 gehiago. Hala ere, 2014rako aurreikusitako autofinantzaketa maila igo egin da apur bat eta %44,5ean kokatzen da, 2013ko aurrekontuaren finantzaketa maila puntu erdian gaindituz. Gastuen atalean diru-laguntzak kontuan hartuko ez bagenu, autofinantzaketa maila ia %48 izango litzateke.

2014rako helburua eta, hortaz, egindako aurreikuspenak oinarritzen dira, orain inoiz baino gehiago, 2013ko abonudunen eta erabiltzaileen kopurua mantentzea, eta ahal bada gehitzea, bai eta kalitateko zerbitzu bat eta eskaintzetan handia eskaintzeko asmoa ere, eta jakitun gara egoera ekonomiko eta sozial honetan abonuen hobariak izateko eskaera gehiago izan dezakegula.

Sarbide libreko gimnastika gelaren alde egiten jarraitzen dugu 2014an, oso arreta osa baitu, bai eta igerilekuaren alde ere, abonudunak mantendu eta erakartzeko oinarritzko elementuak. 2013/2014 denboraldi berrian, antzeman dugu apur bat jaitsi egin dela erabiltzaileen parte hartzea eremu lehorreko ikastaroetan, eta guk uste dugu hori lotu behar zaiola gizarteak bizi duen egoera ekonomiko delikatuari. Igerilekuko ikastaroei dagokienez, zorionez mantendu egin ditugu.

Hala, gure asmoa da arintzea ikastaro parte-hartzaile gutxiago izatea, nabarmenduz gure instalazioak kirola praktikatzeko eskaini behar ditugula.

Eta oraingo egoera ekonomikoa bereziki delikatu bada ere, kontuan hartu dugu Arrasate indarrean dauden prezioen ekuatorean dagoela Debagoieneko udalerrietan; hirugarren lekuan dago prezioei dagokienez, Aretxabaletaren eta Bergararen atzetik, garestienak baitira.

Hala eta guztiz ere, lanean jarraituko dugu 2014an, gure zerbitzuaren eta gure ikastaro eskaintzaren kalitatea hobetzeko, arrasatearren onerako eta intereserako.

Hau da kapituluz kapituluko azalpena:

HIRUGARREN KAPITULUA – TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK (702.100 €).

Prezio publikoei aplikatutako %2ko batez besteko gehitzeari, bai eta tasei aplikatutako %2,2koa ere, gehitu diogu abonudun eta erabiltzaile kopuru berbera mantentzea urte

bukaeran. Hala, guztira aurreikusi dugu gehitze txiki bat, %2,7, aurreko ekitaldiko itxierari buruz.

Hona hemen kontu-sailik esanguratsuenak:

- Abonudunen kuota - 465.000€

2013ko bukaerako abonudunen nahiz 2014rako Ordenantza Fiskaletako %2,2ko igoeraren datuetatik abiatu, eta gizarte osoari eragiten dion egoera ekonomikoaz zuhur jokatu, espero dugu 2013an izan ditugun abonudunen kopurua mantentzea. Hala ere, aurreikusitako diru-sarrera baxuengatik hobari eskaerak ere hazi egin daitezkeela; hortaz, kontzeptu horrengatik gutxienezko gehikuntza bat proposatu dugu (% 3,4).

- Musakolako alokairuak - 16.000€

Hasieran aipatu bezala, instalazioak erreserbatzeagatik eta argiak pizteagatik abonodunei aplikatu behar zaien erreserba tasa berriarekin, aurreikusi dugu diru-sarrerak gehitzea kontzeptu horren truke, eta iaizko ekitaldian bildutakoa bikoiztuko duela ia (% 50).

- Eguneroko sarrerak - 46.000€

Erreserba politikaren aldaketarekin, horren arabera instalazioetara datozen abonudun ez direnek, erreserbako alokairuaz gain, sarrera ordaindu beharko dute, eta kontzeptu horren diru-sarrerak gehituko ditugu.

- Ikastaroak eta kirol jarduerak - 90.000€/ Igeriketa ikastaroak (33.000€)

Kasu bietan azken ekitaldian benetan lortu dugun diru-sarrera hartu dugu kontuan, eta eremu lehorreko ikastaroetan parte hartzeak behera egin badu ere apur bat, horiek bultzatzeko egiten ari garen etengabeko lanak baikorrak izatea egiten gaitu, 2014ko urtearekiko. Beste horrenbeste esan genezake igeriketa ikastaroari buruz, gure ikastaro modalitateak gehitzeko aukera lantzen ari baikara.

Gehitu behar dugu agente bat baino gehiagorekin ari garela lanean (Osakidetza, hainbat patologia duten pertsonen kirola egin dezaten bultzatzeko).

Kontzeptu bien truke %10 gehitu nahi dugu 2013an lortutako diru-sarrera.

- Aseguruaren diru-sarrerak - 2.000€

Kontu-sail hau lotuta dago Gastuetako –Aseguruaren Konponketak- kontu-sailera, eta Aseguruaren aldetik AUKEAk jasotzen dituen diru-sarrerak jaso nahi ditu, kontratatzen dituen polizek zati batez estaltzen dituen ezbeharragatik. Ez dator bat guztiz Aseguruaren

Konponketak kontu-sailarekin, jeneralean konponketak AUKEAren kontura doan frankiziaren bati loturik daude eta.

- Iturripe – diru-sarrerak – 8.000€

Kontu-sailaren diru-kopurua murriztu dugu, 2013an lortutako diru-sarrerekin bat etorritz.

- Uarkape – diru-sarrerak – 8.000€

Kirola ez den erabileragatik egindako alokairuak murriztuko dira, neurri handian Fagor Electrodomésticos, S.Coop.ak urteko asanblada egiten zuelako Uarkapen. Bat etorritz, jarritako konpurua 2013an likidatzea aurreikusten dena baino txikiagoa da (%24 inguru).

Uarkaperi dagokionez, GUREAK taldearekin egindako negoziazioek ez dute eman fruiturik eta une honetan abian dugu udal pilotalekua kontrolatu, garbitu eta kudeatzeko kontratua adjudikatzeko lizitazioa, eta pentsatzen dugu, oraingo egoeran, gauzatu egingo dela adjudikazioa.

LAUGARREN KAPITULUA–TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (900.615,11 €)

- Aurrekontu arruntetik Udalak ematen duen diru-laguntza – 890.615,11 €

AUKEA kirol erakunde autonomoari Udalak ematen dion diru-kopurua da 890.615,11 euro, aurrekontu osoari buruz %55,5 (aurrerakinen VIII. kapitulua izan ezik). Horren ondorioz, autofinantzaketa maila % 44,5koa da eta esan nahi du aurreko ekitaldiarekiko puntu erdian handitu dela.

Azken urteotako defizitaren eboluzioa hau da:

AUKEA-KO AURREKONTU AMAITUEN EBOLUZIOA – 2004-2013

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Norbere diru-sarrerak	551,4€	574,1	609,6	651,8	720,6	765,0	783,4	647,5	740,3	697,5
Gastuak (VIII. Kap. izan ezik)	1.329,0€	1.412,8	1484,7	1597,7	1706,2	1734,2	1.660,4	1.589,1	1.593,8	1.581,8
Defizita	777,6€	838,7	875,1	945,9	985,6	969,2	877,0	941,6	853,5	884,3
Autofinantzaketa maila	%41,5	%40,6	%41,1	%40,8	%42,2	%44,1	%47,2	%40,7	%46,4	%44

2014

	2014
Norbere diru-sarrerak	714,1 €
Gastuak (VIII. Kap. izan ezik)	1.604,7 €
Defizita	890,6 €
Autofinantzaketa maila	%44,5

BOSGARREN KAPITULUA – ONDARE DIRU-SARRERAK (2.000 €)

- Finantza diru-sarrerak – 500 €

2013ko urteko kopurua mantendu dugu, ez baitugu aurreikusi aldaketa aipagarririk.

- Edarietako makinetatik datozen diru-sarrerak - 1.500 €

Kontu-sail hau %50 murriztu dugu. Hainbat aukera aztertu eta gero, kontuan izanik zerbitzu hau eskaintzen duten enpresek ez dutenez gogoko kanon finko bat ordaintzeko konpromisoa hartzea, proba kontratu bat egiteko aukera izan dugu, urte batekoa, eskualdeko enpresa batekin, eta kontraprestazioa hitzartu dugu saltzen diren aleen arabera izatea. Hortaz, zuhurtasun irizpideetan oinarriturik, gutxienezko diru-sarrera bat jarri dugu aurrekontuan, prezio aldakor horretatik benetan 2014an zein diru-sarrera lortu dezakegun jakiteko.

ZORTZIGARREN KAPITULUA – PERTSONALAREN AURRERAKINAK (17.000 €)

Kapitulu honetako diru-sarrerak bat datoz gastuen VIII. Kapitulua gastuekin; aurtengo ekitaldian 17.000 €ko kopurua jarri dugu aurrekontuan.

AUKEA-KO 2014KO PLANTILA ORGANIKOA

AUKEAko erakunde autonomoaren 2014ko Plantila Organikoa hauxe da:

1) FUNTZIONARIOAK

IZENA	TALDEA	EGOERA
1 kirol teknikaria	A1	
1 administraria	A2	50%
1 zerbitzuetako arduraduna	C2	
1 monitorea-soroslea	C2	
2 sorosle	C2	
Sorosle bat	C2	60% (3 hilabete)
administrari laguntzaile bat	C2	
1 mantentze arduraduna	C2	
2 mantentze ofizial	C2	
2 atezain-arropazain	E	
Informazio agente bat	C2	
operario bat	E	
2 Monitor-piscina	C2	50% (9 hilabete)

2) BESTE BATZUK

IZENA	TALDEA	EGOERA
Gerente bat (Udalak utzia)	A1	

“AUKEA” ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2014 URTEKO AURREKONTUA BETETZEKO ARAUAK

LEHEN TITULUA – AURREKONTUA ONARTZEARI BURUZ

LEHEN ARTIKULUA - ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA

1. AUKEA Erakunde Autonomoaren 2014ko urtealdiko aurrekontua guztira 1.621.715,11 eurokoa da, eta nibelaturik dago diru-sarrera eta gastuetan.
2. Aurrekontuaren aplikapen epealdia: 2014ko urtealdi ekonomikoa eta, egonez gero, haren luzapena.

BIGARREN TITULUA - GESTIO EKONOMIKOARI BURUZ

BIGARREN ARTIKULUA - GESTIO EKONOMIKOAREN ESKUMENARI BURUZ

1. Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuak izango dira Erakunde Autonomoen Ekonomia Legea 2014ko urtealdirako, eta Erakundeari dagokio aurrekontuan sartutako kontsignazioen administrazioa.
2. Alkatea eta, hark eskuordeturik, Erakunde Autonomoaren Lehendakaria, ordainketen agindu-emaileak direnez, zuzendari-kudeatzaileak lagundu eta aholkaturik aurrekontua bete dadin eta horietan ezarritakoa Zerbitzuek ere zaindu eta bete dezaten arduratuko dira, betiere, indarrean dauden legezko xedapenen, arauen eta Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak hartutako edo har ditzakeen akordioen arabera.

HIRUGARREN ARTIKULUA - AURREKONTUAREN KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

1. Aurrekontuaren exekuzio-egoeraren eta Erakunde Autonomoaren ekonomia eta finantza egoeraren berri emango zaie hileroko Zuzendaritza Batzordeko kide guztiei eta Ogasun batzordeari.

HIRUGARREN TITULUA - GASTUA ONARTZEARI ETA ORDAINTZEKO AGINDUARI BURUZ

LAUGARREN ARTIKULUA - GASTUAREN GESTIOKO FASEAK

1. Fase hauetan egingo da Erakunde Autonomoaren gastuen aurrekontuaren gestioa:

- | | |
|-----------------------------------|-----|
| a) Gastuaren baimena | "A" |
| b) Gastuen erabilera | "D" |
| c) Obligazioaren errekonozimendua | "O" |
| d) Ordainketaren agindua | "P" |

A) GASTUAREN BAIMENA Gastu bat egitea erabakitzen duen egintza da, kopuru zehatz edo gutxi gorabeherako batez; Horretarako aurrekontu kreditu baten guztia edo zatia erreserbatzen da.

Gastua ontzat emateko organo eskudunak akordio horretan derrigorrez adierazi behar ditu gastuaren kopuru zehatza edo balioetsia eta zein kontu-sailek finantzatu behar duen.

B) GASTUAREN ERABILERA Gastua egitea erabakitzen duen egintza da, aldeztatik baimendua, kopuru zehatz batez eta hirugarren baten edo hornitzaile baten aurrean.

Gastuaren espedientearen hasieran kopurua zehatz-mehatz eta hirugarren horren edo jasotzailearen izena zein den dakienean Erakundeak, fase bakarrean "AD" pilatuko dira baimen eta erabilera faseak.

Erabileraren kopurua eta Baimenarena bat ez badatoz, eta Zerbitzu edo Batzordetik bestelakorik planteatu ezean, erabileraren kopurua izango da udal kontabilitatean ezarri behar dena, hasieran baimendutako kopurua eguneratuz, kontabilitateko ohartarazpenaren bidez.

C) OBLIGAZIOAREN ERREKONNOZIMENDUA Entitateari eska dakioken kreditu bat dagoela adierazten duen egintza da, baimendua eta konpromisoa hartutako gastu batetik datorren kreditua.

Salbuespenez eta gastuaren izaeratik datorrelarik, fase bakar batean pilatu ahal izango dira baimena, erabilera eta obligazioaren aitorpena.

D) ORDAINTZEKO AGINDUA Ordainketen agindu emaileak, aitortu eta likidatutako obligazio baten arabera, ordaintzeko agindua ematen duen egintza da.

BOSGARREN ARTIKULUA - GASTUAK ONARTZEKO ESKUMENAK

1. Aurrekontuan kontsignatuta dauden kredituen eta urtealdia igaro bitartean tramitatu daitezkeen kreditu aldaketen ondoriozko kredituen mugen barnean, ezin izango da onartu inolako gasturik aurrez horretarako agindua eman gabe, zenbatekoaren arabera, organo edo pertsona hauetarikoren batek:

- Mantentze burua
- Kirol Teknikaria
- Zuzendari-kudeatzaileak
- Erakunde Autonomoaren Lehendakariak
- Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak

2. Gastua nori dagokion onartzea:

- a) Mantentze buruari, 300 eurotik behera bere eskuduntzako eremuan dauden gastu arruntetarako.
- b) Kirol teknikariari, 300 eurotik behera bere eskuduntzako eremuan dauden gastu arruntetarako.
- c) Zuzendari-Kudeatzaileari, 600 eurotik beherako gastu arruntetan.
- d) Erakunde Autonomoaren Lehendakariak, 6.000 eurotik beherako gastu arruntetan.
- e) Zuzendaritza Batzordeari, 6.000 eurotik gorako gastu arruntetan.
- f) Presa, larrialdi eta antzeko egoeretan, Erakunde Autonomoaren Lehendakariak edozein kopurutako gastuak baimendu ahal izango ditu, eta gero Zuzendaritza Batzordeari emango dio horren berri, jakinaren gainean egon dadin.

3. Erakundearen Zuzendari-Kudeatzaileak eduki ekonomikoko obligazioak sor ditzakeen ekintza guztiak onartuko ditu, 150 eurotik beherakoak direnak izan ezik, eta balioa izateko hauek adierazi behar ditu nahitaez: gastua zenbatekoa den, zertarako den eta haren deskribapena, aurrekontuko kontusailen arabera.

150 eurotik beherako gastuek ez dute aurrez fiskalizazio beharrik eta eskaera txartelaren bidez izapidetuko dira, betiere, gastua zenbatekoa den, zertarako den eta deskribapena agertu behar ditu, aurrekontuko kontusailen arabera.

4. Kontratazio formulak ezarritako legezko aginduetara egokituko dira, eta zuzeneko adjudikazioak egiteko gutxienez 3 eskaintza izan behar dira gastua egiteko, 1.200 eurotik beherako zenbatekoen salbuespenarekin, hauetan ez baita beharrezkoa baldintza hori betetzea.

5. Gastuak onartu, zerbitzu berriak sortu, edo lehendik datozenak gehitzen dituzten akordioek ez dute baliorik izango horretarako ordaintzeko behar hainbat krediturik egon gabe.

SEIGARREN ARTIKULUA – ORDAINKETA AGINTZEA

1. Erakunde Autonomoaren Lehendakariak zuzenean igorri ahal izango ditu honako ordainketa hauek, aurretiaz Erakunde Autonomoaren Zuzendari-Kudeatzaileak kontu hartu eta baimendurik, beste izapiderik gabe:

- a) Pertsona edo entitate jakinen izenean aurrekontatutako kopuruak, edo zerbitzu jakin batzuetarako berariaz kontsignatuak eta zehatz-mehatz aurrekontuan pentsatutakoak.
- b) Pertsonalaren nominak eta hartzekoak, Erakunde Autonomoaren zuzendari-kudeatzailearen zerbitzu-eginkizunaren ziurtagiriaz.
- c) Kontribuzioa eta zergak.
- d) Iragarkiak eta harpidetzak.
- e) Telefono zerbitzua.
- f) Ordezkaritza gastuak.
- g) Gizarte Segurantzako kuotak.
- h) Erakundeak sinatutako aseguru-kontratuei dagozkien polizak.
- i) 1.200 eurotara iristen ez diren gastu arruntak, eskaintako zerbitzuari buruzko aurretiazko oniritziarekin.
- j) Berokuntza sistemarako eta antzekoetarako erregaia erostea, zenbatekoa edozein izanik.

2. Gainerako gastuak ordaintzeko, baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Dagokion langileak zerbitzua edo hornidura jaso dela eta horiekin ados izatearen onespena ematea.
- b) Erakunde Autonomoaren zuzendari-kudeatzaileak aldiro-aldiro aurkezten duen faktura zerrendan sartzea, Zuzendaritza Batzordeak aztertu eta onartu dezan.

3. Erakunde Autonomoak hornidura eta obra eta inbertsioak egiteagatik eska dakizkiokeen obligazioak uztailaren 5eko 15/2010 Legeak zehazturiko epeen arabera ordainduko ditu.

ZAZPIGARREN ARTIKULUA – DIRULAGUNTZEI BURUZ

1. Entitateentzako dirulaguntzak honela emango dira: aurrez horretarako ezartzen den deialdia egingo da, eta eskabidea aurkeztu behar du Entitate bakoitzak. Eskabideotan derrigorrez agertu behar dira urtealdian gauzatu beharreko ekintzen txostena eta aurrekontua.

Talde bat, entitate bat edo elkarte bat izanez gero dirulaguntzaren onuraduna, Autonomia Erkidegoaren Elkartearen Erregistroan inskribaturik egotea ziurtatu behar du, eta udalbatzarekin obligazio fiskalei dagokienez egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria aurkeztu.

2. Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Batzordea izango da dirulaguntzak emateko organo eskuduna.

3. Emandako dirulaguntzen ordainketa diruz lagundu beharreko ekintzetatik datozen finantza beharren arabera egingo da. Arau orokor moduan, behar bezala justifikatutako salbuespenak salbu, ordainketa-modu hau ezarri da:

a) Emandako urteko kopuruaren %60aren ordainketa, 15 eguneko epean, Zuzendaritza Batzordeak ematen duen akordiotik kontatzen hasita.

b) Gainerako %40 edo dagokion kopuruaren ordainketa Zuzendaritza Batzordearen akordioz, 15 eguneko epean, entitate bakoitzetik urtealdian egindako ekintzen txostena eta gastu edo sarreraren justifikagiriak jaso ondoren.

4. Egin diren ekintzen memoria eta gastuen egiaztagiriak aurkezteko azken eguna urtetik urterako denboraldia duten klubentzat 2014ko urriaren 31 izango da, eta 2015eko urtarrilaren 31 urte naturalarekin bat datorren denboraldia dutenentzat.

5. Adierazitako egunetan Entitateren batek dokumentazio hori aurkeztuko ez balu Erakunde Autonomoaren zerbitzuek hasiera batean ordaindutako zenbatekoaren itzulera lortzeko behar diren izapideak hasiko dituzte. Horren ondorioz, Entitate hauek dirulaguntza berriak lortzeko eskubidea galduko dute jasotako dirulaguntzaren zenbatekoaren justifikazioa aurkeztu arte.

LAUGARREN TITULUA - KREDITUEN SISTEMA OROKORRARI BURUZ

ZORTZIGARREN ARTIKULUA – KONTSIGNAZIOEN, LOTURA MAILEN IZAERARI BURUZ

1. Gastuen egoera-orriko kontsignazioek Udal obligazioen gehienezko muga egiten dute; aurrekontuan sartuta egoteak ez du ezelako eskubiderik ematen, eta zerbitzu bakoitzerako ezinbestekoa den kopurukoak izan behar dira kontsignazio horiek, kreditua egote hutsak ez duelarik gastua egiteko baimena ematen, behar-beharrezkoa ez bada, behintzat.

2. Aurreko puntuan ezarritakoa gorabehera, badira hartu beharreko udal obligazioen gehienezko muga ez daukaten hainbat kontusail, honako hauek:

a) Pertsonal gastuetarako kredituak (Lehen kapitulua). Egin beharreko gastuen gehienezko muga da kapituluaren kontsignazio osoa, eta aurrekontu kontusail bakoitzaren kontsignazioak gaindu ahal izango dira kapituluaren kontsignazio osoa gainditu gabe, Zuzendaritza Batzordearen akordioen ondorioz (ordainsariak gehitzea, erregimen laborala aldatzea plantilla erregularizatu delako, pertsonala plantillan sartzeta, etab.) ezarritako kredituari buruz gastu handiagoa izanez gero.

b) Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko kredituak (Bigarren kapitulua). Egin beharreko gastuen gehienezko muga da kapituluaren kontsignazio osoa, eta aurrekontuaren kontusail bakoitzaren kontsignazioak gainditu ahal izango dira kapituluaren kontsignazio osoa gainditu barik, baldin eta Zuzendaritza Batzordearen akordioen ondorioz (presazko konponketak, energia kontsumo berriak edo inbentariatu ezin den material kontsumo berriak, etab.) ezarritako kredituari buruz gastu handiagoa izanez gero. Neurri horretan ez dira sartuko, "ordezkaritza gastuen" eta "bidai eta ikastaroen" kontusailak; bederatzigarren artikuluan ezarritako erregimen orokorrak arautuko ditu horiek.

3. Sarreraren kontsignazioa Udal aurrekontuen gutxi gorabeherako kalkulua da eta ezelako mugarik gabe egin daiteke.

BEDERATZIGARREN ARTIKULUA – KREDITU TRANSFERENTZIAK

1. Batetik bestera transferitu ahal izango dira aurrekontuko kontusailletarako ontzat eman diren dotazioak, arau hauen arabera:

a) Pertsonal gastuetarako kredituak (I. kapitulua)

Aurrekontua betetzeko arau hauetako zortzigarren artikulua, 2. zenbakia, a) hizkiaren arabera, kapitulu bereko kontrako zentzuzko desbideraketak dituen kontusail batean izaten diren soberakinak konpentsatu ahal izango dira.

Soberakinak transferitzeko aukera hori ere kontu-sail berriak sortzeari aplikatu dakioko, beharrezkoa izanez gero ordezkatzeko, baja, lan araubidea aldatzea eta abarren ondorioz.

Halaber, Kapitulu honetan izan litezkeen soberakinak beste kapitulu batzuetako desbideraketa negatiboak finantzatzeko erabili ahal izango dira.

b) Ondasun Arruntak eta Zerbitzuak erosteko kredituak (II. kapitulua)

Arau hauetako zortzigarren artikulua, 2. zenbakian adierazitako kredituez gain, horien artean libre konpentsatu ahal izango diren kredituak, izaten diren soberakinak hauek finantzatzeko erabili ahal izango dira:

- Kapitulu honetako beste kontusail batzuen desbideraketa negatiboak.
- Gehigarri moduan kalifikatutako kredituak.
- Gastuen aurrekontuaren beste kapitulu batzuen desbideraketa negatiboak.

c) Transferentzia korranteak (IV. Kapitulua).

Kapitulu honetan izaten diren soberakinak hauek finantzatzeko erabili ahal izango dira:

- Kapitulu honetako beste kontusail batzuen desbideraketa negatiboak.
- Gehigarri moduan kalifikatutako kredituak.
- Gastuen aurrekontuaren beste kapitulu batzuen desbideraketa negatiboak.

2. A, b eta c ataletan aurreikusitako kredituen transferentziak Zuzendaritza Batzordeak onartu behar ditu, Erakunde Autonomoaren zuzendari-kudeatzailearen proposamenez, urtarrileko hasierako aurreikuspenaren aldean, kontusailaren desbideraketa osoak %25 gaintzen ez badu; edo portzentai hori gaintuz gero ere, 600 eurotik beherakoa bada desbideratutako kopurua.

Desbideraketa portzentai hori gaintzeaz gain 600 eurotik gorakoa izango balitz transferitu beharreko kopurua, Zuzendaritza Batzordearen proposamenez eta aurrez Ogasun Batzordeak informazioa eman eta gero, Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra izango litzateke aldaketa onartzeko Organo eskuduna.

3. Hiruhilero helaraziko zaio Udalari, artikulua honetan araututako kreditu transferentziaren bidez Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Batzordeak onartutako kreditu aldaketan zerrenda.

HAMARGARREN ARTIKULUA – KREDITU GEHIGARRIAK

1. Hurrengo zenbakian ezartzen diren formalitateak aurrez bete ondoren kopurua gehi dezaketen kontusailak dira kreditu gehigarritzat jotzen direnak:

- Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko diren kredituak.
- Emandako zerbitzuen aldiak batzetik sortutako hiru urtekoak ordaintzeko diren kredituak.
- Pertsonalari ordainsariak ordaintzeko direnak, lansarien igoeren ondorioz gehitu egin behar direnean.
- Klase pasiboak" deiturikoei buruzkoak, obligazioen errekonozimenduaren arabera, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.
- Pertsonalaren aurrerakinak ordaintzeko kredituak, eta 'pertsonalaren aurrerakinak itzultzea' izeneko sarreraren kontusailaren kontura finantzatzeko dira.
- Gehigarriak izango dira aplikazio espezifikoak duten sarrerekin finantzatzen diren gastuen aurrekontuko kredituak (dirulaguntzak eta abar).

2. Diru-sarreraren aurrekontuan diru-bilketa handiagoen kargura, kontu-sail hauek gehitu dakizkieke gastuen aurrekontuaren kredituei:

- "Kirol ekintzetako zerbitzuak" kontusaila, kirol ikastaroetarako hasiera batean aurreikusitakoaren aldean diru bilketa handiagoaren kontura.
- "Udako kanpaina" kontusaila, "Udako Kanpainan Diputazioaren dirulaguntza" kontzeptuan hasiera batean aurreikusitakoaren aldean diru bilketa handiagoaren kontura, edo diru sarrera handiagoak tasengatik.

HAMAIKAGARREN ARTIKULUA - HANDITU EGIN DAITEZKEEN KREDITUAK FINANTZATZEKO BALIABIDEAK

a) Bederatzigarren artikuluan gehigarritzat jotako kredituen gehikuntzak honela finantzatuko dira:

1) Afektatutako eskubideen benetako diru bilketaren arabera daudenak, hasieran aurreikusitako sarrerak kontuan izanik lortzen diren diru-sarrera handiagoak oinarritzat hartuta finantzatuko dira.

2) Finantzaketa modu espezifiko bat esleituta ez daukatena honela finantzatuko dira, kreditu transferentzia bidez edo egokituz jotako legezko beste edozein baliabideren bitartez.

b) Zuzendaritza Batzordeak onartuko du gehigarri kalifikatutako kreditu baten kontsignazio igoera, zuzendari kudeatzailearen proposamenez, eta gehitzearen kopurua eta finantzatzen duen baliabidea azalduko ditu. Hiruhilero helaraziko zaio Udalari Zuzendaritza Batzordeak onartutako kreditu gehigarrien zerrenda.

c) 10. artikuluan aurreikusten diren kredituak handitzea finantzatzerik ez badago artikuluko honetako 1. eta 2. zenbakietan jasotzen diren baliabideez, kredituak aldatzeko espediente bat izapidetuz egingo da.

BOSGARREN TITULUA – PERTSONALAREN KREDITUEI BURUZ

HAMABIGARREN ARTIKULUA – LANGILEEN ORDAINKETEI BURUZ

Erakunde Autonomoaren zerbitzuan dagoen Pertsonalaren urteko ordainsari osoak gehituko dira, interesatuek lortzen duten akordioaren arabera.

HAMAHIRUGARREN ARTIKULUA – LAN KONTRATUKO LANGILEAK

Gaixotasun, ikastaro edo lan kargak direla-eta ordezkapenen ondorioz behar diren aldi baterako kontratazioak Alkateak onartuko ditu, Zuzendari Kudeatzaileak proposatuta.

Presakako arrazoiek hala eskatzen dutenean, Erakunde Autonomoaren Lehendakaria izango da kontratazioa ontzat emango duena, eta gero Alkateari emango zaio horren berri.

SEIGARREN TITULUA – AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZ

HAMALAU GARREN ARTIKULUA – AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZ

2014ko abenduaren 31n itxiko da 2014ko aurrekontua, ordura arte kitatutako eskubide eta aitortutako obligazioei dagokienean.

Zuzendaritza Batzordea izango da, Erakunde Autonomoaren Lehendakariaren proposamenez eta Zuzendari-Kudeatzailearen aholkuarekin, urtealdiko aurrekontuaren hasierako likidazioa ontzat emateko organo eskuduna.

Udalari bidaliko zaio likidazio hori, Tokiko Gobernu Batzarrak behin-betiko onar dezan.

Halaber, Zuzendaritza Batzordea izango da kreditu gerakinak sartzearabakitzeko organo aginpideduna, lehendik errekonozitutako obligazioak betetzera beharturik ez daudenean gerakin horiek, indarrean dagoen legerian jasota dauden kasuetarako, baina inkorporazio horiek finantzatzeko nahikoa baliabide baldin badago.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Oinarri edo arau hauetan aurrikusi gabekoan indarrean dagoen legerian ezarritakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Arauok 2014. urtean eta, gertatuz gero, horren luzamenduan, izango dute eragina, eta halaber indarrean jarraituko dute Udalak arau horien aldaketa edo indargabetzea onartzen ez duen bitartean.

2014

GASTUEN AURREKONTUA		2014
1 1000.120.452.01.01 2013	254 FUNTZIONARIOEN SOLDATAK	162.385,79
1 1000.120.452.02.01 2013	255 FUNTZIONARIOEN ORDAINSARI OSAGARRI	314.850,04
1 1000.130.452.00.01 2013	257 PERTS. KONTRATAT. SOLDATAK	5.878,38
1 1000.160.452.00.04 2013	5 ELKARKIDETZA	8.098,44
1 1000.160.452.01.01 2013	6 GIZARTE SEGURANTZA	134.452,46
1 1000.162.452.00.05 2013	123 LANGILEEN ASEGURUAK	4.500,00
	I. KAPITULOA	630.165,11
1 1000.211.452.00.01 2013	258 KONTSERBAZIOA ETA KONPONKETAK	33.000,00
1 1000.211.452.01.01 2013	260 SEGURU KONPONKETAK	3.000,00
1 1000.212.452.00.01 2013	261 MAKINEN MANTENTZE KONTRATUAK	9.500,00
1 1000.220.452.00.01 2013	12 BULEGOKO MATERIALA	2.500,00
1 1000.221.452.00.01 2013	15 ENERGIA ELEKTRIKOA	144.000,00
1 1000.221.452.00.02 2013	16 URA ETA ZABORRAK	89.000,00
1 1000.221.452.00.03 2013	17 GASA	144.000,00
1 1000.221.452.00.05 2013	18 LANGILEEN JANTZIAK	1.000,00
1 1000.221.452.00.08 2013	19 BOTIKINAKO GAIK BERRITZEA	400,00
1 1000.221.452.00.09 2013	20 GARBIGARRIAK	4.000,00
1 1000.221.452.00.12 2013	21 KLOOROA	6.000,00
1 1000.221.452.00.99 2013	22 KIROL MATERIALA	1.500,00
1 1000.221.452.01.12 2013	23 ALGAZIDAK ETA AZIDO KLOORHIDRIKOA	4.200,00
1 1000.221.452.01.99 2013	24 IGERILEKUKO MATERIALAK	1.500,00
1 1000.221.452.02.99 2013	25 ALDAGELETAKO MATERIALA	1.000,00
1 1000.222.452.00.01 2013	262 POSTA, TELEFONOA, HARI MUSIKALA	3.800,00
1 1000.223.452.00.01 2013	263 GARRAIO GASTUAK	800,00
1 1000.224.452.00.01 2013	28 ASEGURUAK	12.500,00
1 1000.226.452.00.03 2013	29 PUBLIZITZATEA ETA PROPAGANDA	2.150,00
1 1000.226.452.01.06 2013	30 UDAKO KANPAINA	500,00
1 1000.226.452.02.06 2013	31 KIROL EKINTZAK	500,00
1 1000.227.452.00.01 2013	32 MUSAKOLAKO GARBIKETA ZERBITZUA	185.200,00
1 1000.227.452.00.07 2013	34 KONTUEN AUDITORIA	1.400,00
1 1000.227.452.00.99 2013	35 ZERBITZUAK EMATEA (BESTE BATZUK)	18.100,00
1 1000.227.452.01.04 2013	97 KIROL ZERBITZUA	66.000,00
1 1000.230.452.00.01 2013	264 BIDAIK ETA IKASTAROAK	700,00
1 1000.231.452.00.01 2013	265 ORDEZKARITZA GASTUAK	1.500,00
1 1000.239.452.00.01 2013	38 KALTE-ORDAINAK	200,00
1 1002.211.452.00.01 2013	269 UARCAPE – ZERBITZUAK EMATEA	6.700,00
1 1002.221.452.00.01 2013	86 UARCAPE - ENERGIA ELEKTRIKOA	39.000,00
1 1002.221.452.00.02 2013	87 UARCAPE – URA	2.500,00
1 1002.221.452.00.03 2013	88 UARCAPE – GASA	17.000,00
1 1002.226.452.00.99 2013	90 UARCAPE – BESTE GASTU BATZUK	2.000,00

1 1004.211.452.00.01 2013	273	ITURRIPE – ZERBITZUAK EMATEA	3.100,00
1 1004.221.452.00.01 2013	50	ITURRIPE - ENERGIA ELEKTRIKOA	16.500,00
1 1004.221.452.00.02 2013	51	ITURRIPE – URA	4.600,00
1 1004.221.452.00.03 2013	52	ITURRIPE – GASA	12.500,00
1 1004.226.452.00.99 2013	54	ITURRIPE – BESTE GASTU BATZUK	500,00
1 1004.227.452.00.01 2013	55	ITURRIPE – GARBIKETA	15.000,00
1 1005.221.452.00.01 2013	271	MAKATZENAKO FUNTZIONAMENDUA	0,00
		II. KAPITULUA	857.350,00
1 1000.369.452.00.01 2013	266	FINANTZA GASTUAK	200
		III. KAPITULUA	200
1 1000.481.452.00.01 2013	267	KIROL TALDEENTZAKO DIRULAGUNTZAK	70000
1 1000.481.452.00.02 2013	43	KIROL JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA	5000
1 1000.481.452.00.03 2013	44	LEINTZ ESKOLA KIROLA	39000
1 1000.481.452.05.00 2013	468	ZUZENENKO DIRULAGUNTZA BEREZIAK	3000
		IV. KAPITULUA	117.000,00
1 1000.833.452.00.01 2013	268	LANGILEEN AURRERAKINAK	17000
		VIII. KAPITULUA	17000
GASTUAK GUZTIRA:			1.621.715,11

SARREREN AURREKONTUA			
2 1000.340.000.01.02 2013	1	ABONODUNEN KUOTAK	465000
2 1000.340.000.02.02 2013	2	EGUNEKO SARRERAK	46000
2 1000.340.000.03.02 2013	3	MUSAKOLAKO ALOKAIURUA	16000
2 1000.340.000.08.02 2013	12	KIROL IKASTAROAK	90000
2 1000.340.000.09.02 2013	388	IGERIKETA IKASTAROAK	33000
2 1000.340.000.10.02 2013	14	UDAKO KANPAINA	1000
2 1000.340.000.11.02 2013	15	MASAJE INST. ALOKAIURUA	500
2 1000.340.000.12.02 2013	16	BESTE KIROL EKIMEN BATZUK	500
2 1000.340.000.13.02 2013	17	ITURRIPE-DIRU-SARRERAK	8000
2 1000.340.000.14.02 2013	21	UARKAPE-DIRU-SARRERAK	8000
2 1000.340.000.17.02 2013	55	UDALAREN KIROL POLITIKA	30000
2 1000.340.000.18.02 2013	56	TXARTEL MAGNETIKO BERRIAK EGITEA	100
2 1000.340.000.19.02 2013	133	BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	2000
2 1000.340.000.20.02 2013	361	ASEGURUKO SARRERAK	2000
		III. KAPITULUA	702100
2 1000.420.000.01.99 2013	23	UDALAREN DIRULAGUNTZA	1000
2 1000.420.000.02.99 2013	24	UDAKO KANPAINA: FORU ALDUNDIAREN D	9000
2 1000.430.000.00.01 2013	25	IGERIKETA KANPAINA: FORU ALDUNDIARE	890.615,11
		IV. KAPITULUA	900.615,11
2 1000.553.000.00.01 2013	26	EDARIETAKO MAKIN. ETA UDAKO TABERN	1500
2 1000.560.000.00.01 2013	27	FINANTZA DIRU-SARRERAK	500
		V. KAPITULUA	2000
2 1000.832.000.00.01 2013	28	AURRERAKINAK ITZULTZEA	17000
		VIII. KAPITULUA	17000
SARRERAK GUZTIRA:			1.621.715,11